



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

**ORDENANTZA, MERKATARITZA EZ EGONKORRA ARAUTZEN DUENA
(NAO 88 zbk, 2008ko uztailak 18, eta NAO 169 zbk, 2013ko irailak 3)**

**I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK**

1. ARTIKULUA.

Ordenantza honen xedea Altsasuko udal mugapean merkataritza ez egonkorra arautzea da eta uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legearen 5. artikulua babesean onetsi da, lege horretan xedatutakoa garatzeko asmoz.

2. ARTIKULUA.

Merkataritza ez egonkorraren esparruko merkataritza jardueratzat hauek har daitezke:

- a) Noizbehinkako merkataritza, salmenta kalez kale egiten denean.
- b) Merkatu txikietako merkataritza, aurretik ezarritako leku, egun eta orduetan egiten dena.

**II. KAPITULUA
KALEZ KALEKO SALMENTA**

3. ARTIKULUA.

1. Kalez kaleko salmenta da merkataritza jarduera bat, betiere tradiziozkoa, udal organo eskudunak baimentzen dituen herrigune eta egun zehatzetan egiten dena, saltokiak bakarka nahiz multzoka egonik.

2. Kalez kaleko salmenta hauek onartzen dira:

- a) Barkillo, gaztain, izozki, meloi eta turroien salmenta.
- b) Palmondoen salmenta, Aste Sainduaren aurreko egunetan.
- c) Loreen salmenta, Domusantu egunaren inguruan.
- d) Altsasuko festetan, Santa Agedan, inauterietan, ferietan, eta San Juan eta San Pedro egunetan.

**III. KAPITULUA
MERKATU TXIKIETAKO MERKATARITZA**

4. ARTIKULUA.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

1. Merkatu txikia gai eta produktuen salmenta antolatua da, elikagaiak barne, udal organo eskudunak espresuki baimendu eta multzoka ezarritako saltokietan.

2. Merkatu txiki bakarra paratzeko baimena emanen da, udal organo eskudunak zehazten duen lekuan ezarriko dena. Asteazkenez egun batean eginen da, egiteko muga egun gisa ezartzen diren daten artean.

5. ARTIKULUA.

1. Merkatu txikia ezartzeko urteroko epealdia onesten duen erabaki bakoitzean, udal organo eskudunak hau zehaztuko du:

a) Zehazki non paratuko den.

b) Ezartzeko eguna eta ordua: urteko asteazkenean, 7:00etatik 13:30era arte.

c) Hura osatzen duten gehieneko saltoki kopurua, elikagaien merkataritzari baimendu zaizkionak bereiziz.

d) Nekazari eta/edo abeltzainendako, banaka nahiz elkartuta, beren produktuen salmentarako erreserbatutako saltoki kopurua, salmenta horiei bultzada eta lehentasuna eman nahi baitzaie.

e) Saltzeko debekua duten gai eta produktuak eta garraiatu edota hotzean kontserbatzeko instalazio bereziak behar dituztenak.

2. Zenbait produktu ezin izanen dira saldu, beraiei dagokien araudiak hala debekatzen duenean. Horiez gain, beste hauek ere ezin izanen dira saldu:

a) Haragia, hegaztiak, zezinak, ehizagaiak, arrainak eta itsaskiak.

b) Esnea, gazta freskoa, gaztanbera, esnegaina, gurina, jogurta eta bestelako esneki freskoak.

c) Pastel eta opil beteak edo hornituak, pasta freskoak eta beteak.

d) Janari keztatuak eta bertzelako erdikontserbak.

e) Sendabelarrak.

3. Arrautzak saltzeko baimena ematen da, baina ontzietan sarturik egon eta etiketak izan behar dituzte, baita 10° C baino hozbero txikiagoan egon ere.

Urdaiazpiko eta hestekiak garraiatu, bildu eta jendaurrean erakusteko, beharrezko higie baldintzak bete beharko dira eta inguruak garbi-garbiak eduki. Urdaiazpiko eta hestekiak zintzilik eta ordenaturik egonen dira. Ez dute inola ere ibilgailuaren zola ukituko. Salmahaiak material garbigarri eta iragazgaitzez eginak izanen dira eta garbiak egon beharko dute.



Urdaiazpiko eta hestekiek behar bezala konplituriko osasun agiriak izanen dituzte aldean. Horietan, datu orokorrez gainera, aipatu produktuak ongi identifikatzeko balio dutenak ere azalduko dira.

4. Ikuskatzaitza zerbitzuek ibilgailuari edo arestian zehaztu eskaintzari dagozkion higie arauak betetzen ez dituzten produktuak salgai jartzea debekatuko dute edota, bestenaz, dekomisatuko osoki identifikatzea zaila izan edo narriadurak erakusten dituztenak.

5. Oinarrizko arau gisa, elikagai guztiek beraiendako ezarri osasun araudia beteko dute, eta ontzietan sartu eta etiketatuko dira, dagokien araudiak hala eskatzen duenean.

6. Salgai dauden produktuak, gutxienez ere, lurretik laurogei zentimetroko garaierara paratu beharko dira, haien tamainak eta pisuak horretarako bide ematen badute. Orobat, elikagaiak ezin izanen dira inola ere zuzenean lur gainean paratu.

7. Udal organo eskudunak erabakiko du merkatu txikia zehazki non kokatuko den eta hartan gehienez ere zenbat saltoki izanen diren. Aurretik, honako hauek egindako txostenen berri izan beharko dute:

a) Merkatari ez egonkorak ordezkatzeko dituzten elkarteak.

b) Herrian kokaturiko merkatari egonkorak ordezkatzeko dituzten elkarteak.

Nolanahi ere, hamar egun baliouduneko epean txosten horiek egin gabe egoteak ebazpena emateko bidea emanen dio udal organo eskudunari.

IV. KAPITULUA

UDAL BAIMENAK

6. ARTIKULUA.

Kalez kaleko salmenta indarra duten xedapenek arautuko dute eta horretan aritzeko baimenak Altsasuko Udalaren menpeko zerbitzu hauek tramitatuko dituzte: Udaltzaingoa, Garapen Ekonomikoaren eta Merkataritzaren Batzordea eta udal organo eskuduna.

7. ARTIKULUA.

1. Merkatu txikietan saltzeko beharrezkoak diren udal baimenak erdiesteko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

a) Eskabidea egin baino lehen, merkataritza eta industria jardueretarako lizentzia fiskalaren epigrafean inskribaturik egotea eta behar den tarifaren ordainketa eguneratua duela frogatzea.

b) Udalarekiko betebeharrak ordainduta izatea.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

c) Gizarte Segurantzako dagokion sailean inskribaturik egotea eta ordaindu beharreko kuotak eguneratuak dituela frogatzea.

d) Beren burua araudi tekniko-sanitarioek eta gainerako xedapen aplikagarriek eskatzen dituzten baldintzak betetzera behartzea, merkataritzaren xedeko salgai edo produktuei buruz.

e) Elikagaiak saltzen dituztenek janari erabiltzaileen karneta izatea, indarra izan beharko baitu, edo gero ematen diren xedapenen arabera ordezkatzeko duena.

f) Atzerritarren kasuan, egoitza baimena eta beren kasa lanean aritzekoa izatea, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

g) Udal baimena eskatzea, hurrengo datu hauek aurkeztuta:

–Izen-deiturak.

–Nortasun agiri nazionalaren zenbakia.

–Bizitokiaren herria, karrika, zenbakia eta solairua, baita posta kodea ere.

–Saltokiaren neurriak, behar bezala egiaztatutakoak.

–Baimenduta saldu nahi diren gaiak, zehatz-mehatz.

–Titular beraren saltokietan lan egiten duten jendeei buruzko xehetasunak.

2. Udal baimenen titular gertatzen direnek karnet tamainako bi argazki ekarri beharko dituzte, eta beharturik egonen dira Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantzan ezarritako tributuak ordaintzera, eta ematen zaien lekua betetzera eta haren luze-zalak errespetatzera.

3. Salmentarako baimena eskuratzeko eskatutako baldintzak betetzeari uzteak ekartzen ahalko du baimen hori galtzea, espedientea tramitatu ondoren, interesdunari entzunda.

8. ARTIKULUA.

Udal organo eskudunak nekazariendako zenbait saltoki erreserbatzen baditu, norik bere uztak sal ditzan, eskatzaile horiek, 7. artikuluan oro har zehazturiko agiriez gain, ekarri beharko dute Udaleko idazkariak emandako ziurtagiria, zeinetan egiaztatu beharko baita, alde batetik, baimenaren eskatzaileak berak landutako produktuak direla eta, bestetik, gai bakoitzari dagokion uzta zenbaterainokoa den. Aipatu ziurtagiriak lehentasuna badu ere, hori bera froga dezaketen bestelako bide baliozkoak ere eskatzen ahalko dira.

9. ARTIKULUA.



–Saltoki finkoak:

1. Altsasuko merkatuan, saltokiak ez dira 70 baino gehiago izanen eta guztiz debekaturik egonen da kalez kaleko salmenta, Udalak aurretik baimena ematen ez badu.
2. Ekitaldi bakoitzean saltokiak esleitzeko, lehentasuna izanen dute aurreko urteko saltoki finkoei dagozkien eskaerek.
3. Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideek merkatu txikian saltzen aritzeko udal baimena jasotzeko aukera izanen dute.
4. Ordenantza honetan eskatu dokumentazioa aurkezten ez duten eskatzaileek hamar eguneko epea izanen dute dokumentazio hori zuzen bete ahal izan dezaten. Agiri horiek aurkezten ez dituzten eskatzaileei errekerimendu egingen zaie hamar eguneko epean zuzen bete dezaten. Aipatu epea ez betetzeak edo agiri guztiak ez aurkezteak berarekin ekarriko du udal baimenak erdietsi ahal izateko eskabideak ez onartzea eta aurkeztu dokumentazioa artxibatu edo beraien titularrei itzultzea. Une horretatik aurrera, merkatuan dituzten saltokiak utzi beharko dituzte.

–Eskaera berriko saltokiak:

1. Merkatuko saltoki finkoetan hutsik baldin bada, Alkatetzak emanen du ebazpena baimen berrien gainean, ondotik ematen diren inguruabarrei begira eta izendapen ordenaren arabera:
 - a) Eskatzailearen helbidea. Helbidea toki hauetan dutenek izanen dute lehentasuna: 1. Altsasu, 2. Sakana eta 3. Nafarroa eta, talde bakoitzaren barnean, helbidean antzinasun handiena dutenak.
 - b) Eskatzailearen inguruabar pertsonalak, familia unitatea osatzen duten kideen enpleguaren aldetik duten egoeraz den bezainbatean; horretarako, aurkezten duen deklarazioari on egiten dioten agiriak aurkeztuko dituzte.
 - c) Merkatuan saltzen ez diren edo salmenta urria duten produktuen salmenta.
 - d) Eskaeraren antzinasuna.
2. Aurreko hautapena eginik, eskaera kopurua lanpostu hutsak baino handiagoa bada beti, merkataritza orokorrerako diren saltokien artean zozketa egingen da baimenen gaineko ebazpena emateko. Zozketak publikoak izanen dira, baina aurreko hautaketan bertan parte hartzeko eskubidea erdietsi duten pertsonetara mugatuak.
3. Urtero berritu beharko da Altsasuko merkatuan saltokia izateko eskabidea.

10. ARTIKULUA.

1. Pertsona edo 5.1.d) artikuluan aipatzen diren elkarteetako bakoitzak ezin du salmentarako baimen bat baizik izan.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

2. Baimenak pertsonalak eta besterenduezinak izanen dira, eta gehienez ere urtebeterako indarra izanen dute.

3. Nekazariendako baimenek indarra izanen dute gaiak biltzeko sasoiak dirauen bitartean bakarrik.



11. ARTIKULUA.

Hona baimenetan zer azaldu behar den: titularraren argazkia eta nortasun datuak, saltokiaren kokagunea merkatu txikiaren barrenean, eta salgai jartzen ahal diren gai eta produktuak.

V. KAPITULUA

MERKATU TXIKIKO EREMUAK ETA SALTOKIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

12. ARTIKULUA.

1. Ibilgailu egokietan baimendutako salmentetan salbu, saltokiak desmontagarriak izanen dira eta baimendutako azalera baizik ez dute hartuko. Gainerako ibilgailuek merkatu txikiaren esparrutik kanpora atera beharko dute.

2. Saltokiak 7:00etatik 9:00etara instalatu beharko dira, elikagaien saltokiak izan ezik, 6:00etatik aurrera egiten ahalko baita hori. Saltokiak kentzen ahalko dira 13:30etik aurrera, eta 15:00ak arte, beranduenez. Kentzeko ordua baino lehen ezin izanen da inolako saltokirik atera, horretarako arrazoiren bat ez bada. 9:30etik aurrera merkatua itxia egonen da ibilgailu klase guztiendako.

3. Ezin izanen dira okupatu oinezkoak beren etxeetan sartzeko pasaguneak, ezta denda eta abarretarako sarbideak ere.

4. Saltoki guztiek beren titularrei emandako baimenak ikusgai izanen dituzte, erosleak kokatzen diren tokitik erraz irakurtzeko maneran.

5. Debekaturik dago saltokietan megafonia eta musika paratzea, eta baita soinu bidezko publizitate mezuak jaulkitzea ere. Nolanahi, musika aparatuek saltzen direnetan megafonia instalazioak para daitezke eta musika jaulki, betiere, udal ordenantzek eta indarra duen araudiak musika sortzen den lekuan baimendutako gehieneko soinu maila gainditzen ez bada.

6. Merkatu txikiko saltokiek bete beharreko beharkizun estetikoak zehazten ahalko dira, eta hala egiten bada, saltzeko baimena eskuratu dutenek beharkizun horiek bete beharko dituzte.

13. ARTIKULUA.

Kamioi-dendei baimendutako salmentetarako, salmahaien gehieneko luzera zortzi metro izanen da. Horiek aparte utzirik, gainerako saltokietan salmahaien gehieneko luzera sei metro izanen da.

VI. KAPITULUA

OSASUN IKUSKAPENAK, ADMINISTRAZIO KONTROLAK ETA ZAINITZA

14. ARTIKULUA.

1. Eremu publikoko saltokietako gai eta produktuen osasun kontrola eta ikuskapenak Altsasuko Udaltzaingoiari dagozkie, osasun-etxeko albatariaren gainbegiratupean.



2. Elikagaiak saltzeko baimena emanen da merkatu txikia ireki aurretik egin beharreko osasun ikuskapena egin ondoren, gero ere beste ikuskapen batzuk egiten ahal badira ere.

3. Eremu publikoko salmentaren inguruan, udal zerbitzu hauei dagozkie antolaketa, administrazio kontrolak eta zainketa: Udaltzaingoa eta Garapen Ekonomikoaren eta Merkataritzaren Alorra.

VIII. KAPITULUA

SALTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

15. ARTIKULUA.

1. Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen eskubideak honako hauek dira:

a) Dagozkien saltokiak okupatzea.

b) Baimendutako gaiak saltzea, onartzen diren egun eta orduetan.

2. Saltoki lanak baimendutako pertsonak eginen dituzte edo, bestela, salmentan laguntzen duten ezkontide, seme-alaba zein gurasoek. Orobat, baimendutako pertsonaren menpe dauden langileak ari daitezke, hots, besteren kontura lanean ari direnak. Baimendutako pertsona horrek laguntzaileak Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean sartuta daudela frogatu beharko du, betiere baimena lortzeko eskabidea egitean horren berri eman bazuen.

16. ARTIKULUA.

Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen betebeharrak osasun, merkataritza eta zerga alorrekoak dira.

17. ARTIKULUA.

Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena duten pertsonak osasun arloko betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Beraiek eta laguntzaileak txukun agertzea saltokian eta saltokiak ahalik eta garbiena edukitzea, batez ere pisu eta balantzarako platerak. Horretarako, ia pisurik ez duen papera erabili beharko dute, salgaiek pisuak eta balantzak uki ez ditzaten.

b) Okupatzen duten saltokiko salmahaia guztiz garbi edukitzea.

c) Saltzeko izan edo biltegian dituzten gai guztiak erakustea osasun ikuskatzailetzari eta aipatu ikuskatzaileek laginak har ditzaten laguntzea.

d) Bilduki berriak erabiltzea.



- e) Elikagaiak saltzen direnetan, indarra duen janari erabiltzaileen karneta izatea.
- f) Udaleko garbiketa zerbitzuei laguntza ematea, saltokiak okupatzen duen aldea garbi-garbi utzita jarduera bukatu ondoan. Horretarako, Udalak behar diren baliabideak jarriko ditu zaborrak, kartoiak, hondakinak, etab. biltzeko.

18. ARTIKULUA.

Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen merkataritza arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Dagozkien saltokiak okupatu eta ezarritako egun eta orduetan irekita edukitzea. Egun batean saltokia okupatzen ez bada eta horretarako arrazoirik ematen ez bada, hutsegizat hartuko da. Elkarren segidan hiru hutsegite eginez gero, eta bost aldizka, saltokia berriz ere okupatzeko eskubidea galduko da, eta hura besterik gabe erreserbara pasatuko da, beste eskabide bati gero esleitzeko.
- b) Udal baimenak ikusgai jartzea, erosleak dauden tokitik erraz irakurtzeko moduan.
- c) Erakusten dituzten produktu guztiak, baimenduta daudenak bakarrik, saltzeko moduan edukitzea.
- d) Hala eskatzen zaienean, ordenantza honetan eskatzen diren dokumentu guztiak udal zerbitzuei erakustea.
- e) Salgaien ondoan haien prezioa argi eta zehatz agertzea. Horretarako, salneurri errotuluen neurriak erosleen aldetik ikusteko modukoak izanen dira.
- f) Udal organo eskudunak pisu eta balantzeetarako ezartzen duen kontrastea onartzea.

19. ARTIKULUA.

Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena eskuratzen dutenek zerga arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Salmentarako beharrezko den kasuetan, eskaturiko fidantza uztea.
- b) Tasak edo eskubideak eskatzen zaizkien unean ordaintzea.

VIII. KAPITULUA ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

20. ARTIKULUA.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Baimenen titularrak izanen dira ordenantza honetako xedapenen aurkako arau-hausteen erantzuleak, beraiek egindakoak izan edo saltzen laguntzen dieten familiakoek eta soldatakoek egindakoak izan.



21. ARTIKULUA.

1.–Merkataritza ez egonkorra arautzen duen uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legean ezarritakoaren arabera, arau-haustea mota hauetakoak izan daitezke:

A.–Arau-hauste arinak:

Arau-hauste arintzat hartuko da baimenean ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, baita udal ordenantza honek zein 13/1989 Foru Legeak ezarritako betekizun eta eginbeharrak ere ez betetzea, betiere azken horiek larri edo oso larritzat ez badira hartzen.

Zehatz-mehatz, arau-hauste arinak hauek dira:

- a) Merkatu txikia hasten den ordu berean saltzen ez hastea.
- b) Hiru egun elkarren segidan eta bost egun aldizka saltokia baimenik gabe itxia edukitzea, aurretik idatziz horretarako arrazoirik eman gabe.
- c) Udal baimenaren kopia jendaurrean ez izatea.
- d) Elikagaiak saltzen direnean, janari erabiltzaileen karnetik ez izatea.
- e) Ordenantza honi jarraikiz, saltokietan aritzeko baimena duten pertsonak egon beharrean, beste batzuk egotea, aginduzko baimenik ez izateagatik arau-hauste oso larritzat hartzen ez bada.
- f) Ordenantza honetan eskatu osasun eta zerga arloko betekizunak ez betetzea.
- g) Salmenta bukatu ondoren, garbiketarako udal zerbitzuei saltokia garbitzen ez laguntzea.

B.–Arau-hauste larriak:

Hona hemen arau-hauste larriak:

- a) Arau-hauste arinetan berrerortzea.
- b) Merkataritzaren xede diren gaiak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak ez betetzea.
- c) Udal agintari edo funtzionarioei beren eginkizunak betetzen ari direnean argibideak ukatu edo ez ematea, baita argibide okerrak edo gezurrezko dokumentazioa ematea ere.

C.–Arau-hauste oso larriak:

Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- a) Arau-hauste larrietan berrerortzea.
- b) Saltzeko baimenik ez izatea.
- c) Udal aginteari, funtzionarioei edo agenteei aurre egitea, haiek hertsatzea edo mehatxatzea beren eginkizunak betetzen ari direnean.

22. ARTIKULUA.

- a) Arau-hauste arinak ohartarazpenez edo 150,00 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.
- b) Arau-hauste larriak 150,01 eurotik 600,00 euro bitarteko isunarekin zehatzen ahalko dira.
- c) Arau-hauste oso larriak 600,01 eurotik 3.000,00 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira eta, kasuan-kasuan, saltzeko baimena aldi baterako kenduz edo baliorik gabe utziz.

Badaezpadako neurri gisa, salgaiak kentzen ahal zaizkie, egindako eginbideetatik haiek merkaturatzeko eskatzen diren baldintzak ez direla bete ondorioztatzen bada, eta bahitu eginen dira agintari eskudunen iritziz osasun arriskua sortzen ahal badute edo haien jatorria zalantzazkoa dela uste bada.

23. ARTIKULUA.

1. Espediente zehatzaileen prozedura indarra duten administrazio xedapenetan ezarritakoari lotuko zaio.
2. Arau-hauste arin, larri eta oso larriengatik zehapenak ezartzeko, espedientea beharko da alde zurretik; hura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruz indarra duen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Zehapen ahalmenaren prozedurarako Erregelamendua onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat tramitatuko da.
3. Alkateari dagokio zehapenak jartzea, nahiz ahalmen hori beste norbaiten esku utz dezakeen. Udaletik kanpoko agintariek zehatu behar dituzten arau-hausteak direnean, alkateak emanen die haien berri.
4. Kasuak arras larriak direnean, organo eskudunak jarduera etetea erabaki dezake, badaezpadako neurri gisa, arau-hauste larri edo oso larriak egin direla-eta irekitako zehapen espedientea tramitatzen den bitartean.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENBIZIKOA.—Ordenantza hau izateak ez dio ekarriko Udalari bertan arautzen diren salmenta motak nahitaez baimendu beharra.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

BIGARRENA.–Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik.